
ABIZENAK

RIPALDA: "Ripa" aldapa da eta "-alda" ingurua.
Baztan'en 1248

SAGARMINAGA: Zeanurin. Sagar mingotsak dagozen lekua. Balladolid 1602, Zeanuriko bat.

SAGARNA: Gipuzkoatik Bizkaira sartua. "-na" txikia. Zarautz 1585.

SAGASTI: Sagar asko dagon lekua. Seguran 1354.

SAGASTA: Oiñarria "sagar-" eta ugaritasun atziakia "-sta".

SALABARRIA: "Sala-" etxaldea da eta barri oraintsu egiña. Bilbaon 1721.

SALAZAR: Enkarterrian eta Aiala-inguruan. Etxalde zarra da. "Lope García de Salazar" 1399 jaioa.

SALTERAIN: Gipuzkoakoa. "Alter" (yezgo) deritxen landaren gaiñean dagon lekua. Aramaion 1723.

SARASATE: Naparroakoa. Saratsak edo "sauce"ak dagozan mendi-atea. Eibar 1695ç

SARALEGI: Iruñan 1777. Sara izeneko landarak dagozan aldapea.

SARASOLA: Sarats edo sauce asko dagon lekua. Zeberion. Gabirian 1548.

SARATXAGA: Saratza dagon tokia. 1736. Gueñes. Amurrio.

SARRAOA: Bergaran edo inguruetan agertzen da eta "Sarri-" zugazti betea dan lez, "-oa" barriz toki-atzizkia, abizenak zugatzak estu dagozan basoa esan gura dau. Anzuolan 1723.

SARRIA: Zuian Gares'en eta Berriz'en agertzen da. Leku askotan daukaz etxeak Bizkaian. Zugatzak estu dauzan basoa da. Oñaten 1447.

SARRIKOLEA: Larrabetzun eta Mungialdean dago eta zugatzak estu dauzan basoan dagon olea da.

SASIAIN: Sasiak dagozen tokiaren gaiñeko aldea esan gura dau. Arrasaten 1446.

SASIOLA: Sasi asko dagon lekua. "-ola" azkenean dagonean ugaritasuna da. Deba ondoan dago izen au daroan tokia eta antxe agertzen abizena 1340.

SATRUSTEGI: Arakil inguruan agiri da. "San Jore'ren lekua" dala diño Mitxelenak. 1780.

SEGURA: Gipuzkoan eta Bizkaian, baiña abizen bardiña Gaztelan be. "-egur-" da oiñarria eta "-aga" mugatzaille sendoa. Segura'ko baten abizena da 1480.

SERTUTXA: Gatikan. Antxiña "sartetza" izango zan. Arte asko dagon lekua. "-s-" gero ezarri da.

SETIEN: Gipuzkoan dago baiña gaztelan be bai beste bat bardiña. Lenago Setuain izan ei zan eta esan gurea "-etu-" sasia eta "-gain", ganea edo goia.

SIERRA: Ez dauko zer-ikusirik erderazko itz bardiña-gaz eta au "zearra"ren aldakuntza da. "Aldapan" dagoana esan gura dau. 1475.

SISTIAGA: Gipuzkoatik etorria da. "iz" edo "junco"gaz azaltzen da: "Iz" edo zi asko "-ti-" dagon lekua "-aga". Ernanin 1778.

SOLAUN: Laudion. "Sola"tik dator eta au oloa dagon lekua da. "-aun" "une" aldatua da. 1806.

SOLOZABAL: Berbak argi diñoer zer dan. Elorriori agertzen da 1590.

SUKIA: Ataun'en agertzen da eta ota-antzekoa bedar bat da.

SUSTATXA: "S-" gero ezarria da eta "-tza" ugaritasuna dan ezkerer "-usta-" otearen antzekoa, "ota asko dagon lekua". Frantziatik etorria da.

SUSTAETA: Azkoitian iru etxe, goikoa, erdikoa eta beko. 1319. Ota asko dagon lekua esan gura dau.

OLAZAR'tar MARTIN'ek